

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko uztailaren 24a. IX. urtea. 2.633. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Izaskun auzoko festa batzordeko kideak eta 'Sputnik 13' bildumako zenbait musikari, agerraldian. ITZEA URKIZU

Gaixotasun arraroak dituztenen alde 24 orduz igerian ariko da Peña

Nafarroako Allotz urtegian egingo du erronka berria Carlos Peña igerilari tolosarrak, Gerna elkarterei laguntza emateko 06

Berazubiko ibai ondoko pasealekua, zabalago

Tolosako estadioaren berritze lanen lehen fasea irailerako bukatzea espero du Tolosako Udalak 06

Espaziontzi berria, prest

Tolosako musika taldeak ezagutzera eman eta estudioan trebatzeko hirugarren lana, Sputnik 13 izeneko, plazaratuko dute Izaskungo jaietan; irailaren 6tik 8ra antolatu dituzte festak 04

ZIUtik irten da tximistak zauritu zuen haur tolosarra 06

Nazioarteko merkatuetan trebatzeko Lehiberriren masterra amaitzear dago

Hainbat ezpezialitate eta adinetako 12 langabetu ari dira parte hartzen masterrean, eta orain amaiera proiektuan ari dira buru-belarri; azken lan hori Tolosaldeko enpresekin batera egiten ari dira 03

Tolosako Larramendi auzoko plaza berriaren jolastokia estalia izango da

Plazaren inguruko trafikoa desbideratzea da urbanizazio lanen beste hobekuntzetako bat 02



XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!



Sari mundialak!





Horrelaxe geratuko da plazako jolastokia: 250 metro karratu ditu eta guztiz estaliko dute. TOLOSAKO UDALA

Larramendiko urbanizazio proiektuan hobekuntzak egin ditu Udalak

Auzoko erdiguneko plazaren inguruko trafikoa desbideratuko dute, eta jolastokia guztiz estaliko da

Mikel Iraola

Auzotarren kezka eta iradokizunak kontuan hartuta, Larramendi auzoko urbanizazio proiektuan hobekuntzak egin ditu Tolosako Udalak. Aldaketarik nabarmenena, besteak beste, auzoaren erdiguneko kokatuta dagoen plazan ezarriko den jolastokia estaltzea-rena izango da.

2011. urtean, Udal Gobernuak aldatu zenean, Larramendi auzoko errepidea lurperatzeko erabakia auzotarren esku utzi zuen udalak. Prozesu parte hartzaile bat jarri zen martxan, aukera ezberdinak planteatzeko. Hainbat bilerak egin ziren, eta horietan, auzotarrek euren kezka azaldu zituzten udalari.

Kezka horien artean, gehienak lurperatzearen eta urbanizazioaren inguruak izan ziren, hala nola, errepideak izango zuen zabalera, trafikoa sortuko zuen zarata edo ibilgailuen abiadura. Kezka horiek haintzakotzat hartu ditu udalak, eta hasierako proiektua hobetze aldera hobekuntza eta aldaketa batzuk egin ditu.

Trafikoa desbideratuko da


Auzoaren erdiguneko plazaren inguruan ibilgailuen joan-etorri-rik egon ez dadin, inguruko kaleetara bideratuko da trafikoa, ahal den neurrian. Inguruko garajeetako irteerak mantenduko dira, baita lurperatuaren inguruan dagoen koexistentziatzko biala ere. Bestalde, pasa den astetik irekita dagoen lurpeko errepidea uste baino motzagoa egin da, eta era berean, zabalera handiagoa du.

Jolastokia estaliko da

Bestalde, lurperatutako errepideko sahietsetan ez dira txapak jarriko, udalak ez duelako horretarako beharrik ikusi. Lan horietarako bideratua zegoen dirua, berriaz, plazako jolastokia estaltzeko erabiliko da. Ondorioz, udalak ez du kostu gehiago izango, hau da, aurreikusitako diru bera gastatuko du.

Auzotarren eskaera izan zen estaltpearena, eta auzoari bizi handia emango dion gunea izango delakoan proposamena onartu du udalak. 250 metro karratu inguru ditu, eta guztiz estaliko dira.

Horrez gain, Arkaute inguruko parkea atsedean hartzeko gune atsegini bihurtu nahi du udalak. Horretarako, parkea txukundu, lorezaintza lanak egin, bankuak jarri eta bide guztiak asfaltatuko dira. Larramendi kalearen hasierako ur hornidura ere hobetzeko asmoa du udalak.



Auzo eraberrituaren planoak. TOLOSAKO UDALA

↓ Aldaketak

LARRAMENDI AUZOA

■ Plazatik trafikoa kentzea.

Auzoaren erdiguneko plazan ibilgailuak ibili ez daitezkeen, inguruko kaleetara bideratuko da trafikoa, Garajeetako irteerak eta lurperatuaren inguruan dagoen koexistentziako biala mantenduko dira.

■ **Haur jokoak estaltzea.** Auzotarren eskaerari erantzunez, jolastokia estaliko da. Gutxi gora-behera 250 m² izango ditu eta guztiz estalia egongo da.

■ **Txapak ez dira jarriko.** Lurperatutako errepidearen sahietsetako txapak ez dira jarriko. Diru hori jolastokia estaltzeko erabiliko da, eta beraz, udalarentzat ez du kosturik suposatuko.

■ **Ur hornidura hobetzea.** Larramendi kalearen hasierako ur hornidura hobetuko da.

■ **Arkaute parkea txukuntzea.** Horrekin batera, lorezaintza lanak egingo dira, bankuak jarri, bideak asfaltatu eta atsedean hartzeko gune atsegini bihurtu.

■ **Lurperatze zatia.** Aurreikusitakoa baino motzagoa eta zabalagoa egin da.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Zezena salgai. Limosin arrazako eta paperak egunean dituen 7 urteko zezen ixkoa salgai. Oso ona da eta 600 kilo inguruko pisua du kanalean. Interesatuak, deitu 656 410280 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Arratoi-txakur arrazako txakur gorri-marroixka galdu zen duela bi aste, Hernialdeko Olaza bailara inguruan. Zerbaiz jakin dezakeen edonork, deitu dezala 943 653525 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanetarako. Emakume euskalduna behar da, haurra goizez eskolara eraman eta atsean lau orduz etxeko lanak egingo ditu. Interesatuak, deitu 622 163774 telefono zenbakira.

Estetizista. Esperientziadun estetizista behar da. Interesatuak, deitu 943 674107 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tolosaldeko taberna baterako neska euskaldun eta eskarmetuduna behar da zerbitzari lanak egingo. Interesatuak, deitu 686 954069 telefono zenbakira.

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992ra.

Hauze Garbitasunak. Garbiketa orokorrak. Aurrekontua eskatzeko, deitu 681 15 24 94ra.

ESKARIA

Erremolkeak. Autoarentzako erremolkeak erosiko nuke. Neurriak, 1,5 metro eta 1,10 metro artean. Deitu 649 510941ra.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Pasa den apirilean eskualdeko nazioarteko merkatuetan trebatzeko masterra aurkeztu zuen Lehiberrik. Hainbat espezialitate eta adinetako langabetuak amaierako proiektuan buru-belarri ari dira orain.

Mundu zabaleko merkatuen bila

Itzea Urkizu

Tolosaldean badute tradizioz, merkatuak eta salerosketak. Nekazaritzari eta bertako produktuei loturiko jarduna da, ordea, herritarrek gehien ezagutzen dutena. Lehiberri zentroaren egitasmo bati esker, eta ikasketen eta lan munduaren espezializazioari loturik, eskualdeko 15 langabetuk beren prestakuntza hobetu eta lan merkatura sartzeko bidea argiago ikusi zuten pasa den apirilean, master berri baten bidez. Marketina eta nazioarteko salerosketa ardatz hartuta, izaera komertzialeko lizentziatuei begira antolatuta zuten masterra, eta ikasleek gaur egun esku artean dute jada, datorren irailean entregatu beharreko proiektua.

Lehiberri zentroak Lanbiderekin elkarlanean sorturiko goi mailako ikastaro hau zentroak eskaini duen lehen masterra da, eta aukeraketa prozesua pasa zuten 15 ikasleek doan jaso dituzte eskolak. Lehiberri Foroko Unai Anduezak nabarmendu duenez, «oso prozesu zorrotza izan zen aukeraketarena, eta ikasketak eta profil komertzialeko herritarrak hautatu genituen».

Nazioartera begira jartze horretan, hiru zati nagusi izan ditu prestakuntza honek. Batetik, merkatuen inguruko informazioa, aduanak, negoziazioetarako gakoak eta antzeko gaiak izan dituzte hizpide, eta masterraren nazioartekotasuna medio, bigarren zatia hizkuntzei begirakoa izan da; horrela, ingeles eta frantses komertziala landu dituzte, maila



Apirilean eduki teorikoekin eta hizkuntzekin hasitako masterra, eskualdeko enpresetako proiektuarekin amaitu beharko dute ikasleek. HITZA

altuan. Azkenik, kasu praktikoen baten analisiak osatuko du ikastaroa, eta ikasle bakoitzak eskualdeko enpresa batean burutuko du azken proiektu hau.

Ekonomiaren esparru honetan trebatzen ari diren ikasleak bi motatakoak direla azaldu du Anduezak: «Batetik, ikasketak amaitu berri dituzten ikasleak daude, eta lan munduan ez dute halako esperientziarik; hala ere, eskatu dugun profilarekin bat egiten dute. Bestetik, 40 edo 50 urte inguruko jendea ere ari da masterrean, eta profil komertziala dute, urteetan barrena esparru honetan lanean aritu direlako;

zorritzarekin, lanik gabe geratu dira». Aipatzekoa da, masterra egiten hasi ziren 15 ikasleetatik 12 geratzen direla, izan ere, bik lana aurkitu zuten, eta bestea atzerri joan da beka baten bidez.

Ikasleen profila komertziala den arren, oso arlo desberdinetako jendea elkartu da masterrean: farmazia, enpresa zuzendaritza, giza zientziak eta enpresa, nekazal ingeniariaritzak nahiz giza zientziak eta komunikazioa ikasitako jendea elkarrekin ari da, esaterako.

Guztiak, ordea, bat etorri dira ikastaroaren izaera trinkoa azpimarratzekoan: «Oso denbora

gutzian eduki asko ikasi dugu, eta egia esan neke ere nabari da. Hala ere, orain dator interesgarriena, eta baita zailena ere, proiektua, alegia».

Bide honetan, nazioarteko esportazioa eta marketina guztien lanerako gaia den arren, nolabait beren jatorrizko ikasketetara bideratu dituzte, oro har, proiektuak.

Enpresen beharrak asetzeko

Master amaierako proiektua egiterakoan, eskualdeko enpresen beharrak ezagutu behar izan dituzte, lehenik, Lehiberriko arduradunek.

Horrela, beraz, enpresak beren produktu edo zerbitzua zein herraldetara eraman nahi duten azaldu diete ikasleei, eta hauen zeregina izango da, produktu eta zerbitzu horiek lurralde jakin horietan zein lehiakide izango dituzten jakitea, edo produktuei lurralde horietan tarte bat egitea.

Hego Amerikara, AEBetara nahiz Indiara begira daude, beraz, Lehiberriko ikasleak, eta badute itxaropenik etorkizunerako: «Guztiok gaude langabezian, eta enpresa hauetan lanerako hartuko bagintuzte, perfektua litzateke».

• tolosaldean@hitza.info

↓ Ikasleen esperientzia

Juan Carlos Ariztorena

Farmazialaria (Alegia)

«20 urte baino gehiagoz ospitale batean lanean aritu ondoren, lanik gabe beratu nintzen. Master honen bidez, nazioarteko marketin eta merkataritzan dauden aukerak ezagutzeko helburua dut, izan ere, gauzak dauden moduan, enpresa guztiek atzerian saldu nahi dute, eta aukerak sor daitezke».

«Nik Tolosako Casa Ezeiza enpresarekin egingo dut proiektua, Ingalaterran eta Erresuma Batu osoan era planifikatua saltzeko. Jada esportatzen dituzte produktuak hara, baina antolatuta egin nahi dute esportazio hori».

Iraia Urreaga

Nekazal ingeniaria (Villabona)

«Nekazal ingeniaria naiz, eta pasa den otsailan amaitu nituen ikasketak. Unibertsitatean ingeniariaritzak ikasketak amaitu bezain laster master hau egiteko aukera ateratu zen, eta gustatu egin zitzaidan, ezaugarri interesgarriak zituela iruditzen zitzaidan; horregatik eman nuen izena».

«Nik ura gatzgabetzeko makina batekin egingo dut proiektua, Perun eta Kolonbian. Zenbait eskualdetan arazoak dituzte urarekin, eta produktu interesgarria da han. Turismo zonaldeetan eta nekazal eremuetan aplikatzeko balio du makinak».

Irti Karrera

Giza Zientziak eta Enpresa (Tolosa)

«HUEM ikasi nuen. Urte betez Kutxabanken lanean aritu eta kontratua amaitu zitzaidan. Ekonomiaren egoera ikusita, eta enpresak zer eskatzen duten ikusirik, marketina eta kanpo merkataritza interesgarriak iruditzen zitzaizkidan; Donostiako Camarako antzeko proiektu bat uztartu dut honekin».

«Malasiako enpresa batekin egingo dut proiektua. Apattan badute lantegi bat, eta esportatzen dute, baina orain Hego Amerikan ikusi dute aukera. Beren asmoa Peruko banatzaileekin epe luzerako harremanak izatea da».

Lide Lete

Enpresa admin. eta zuzendaritza (Tolosa)

«Marketineko espezialitatea ikasi nuen gero. Praktika batzuen ondoren, ez nuen ziur ikusten non lan egin nahi nuen, galduta nengil. Master hau egiteak ate gehiago zabalduko zizkidala pentsatu nuen, eta baita kanpora joateko aukerak ere. Oraingoz ikusi duguna oso interesgarria da».

«Proiektua zerbitzu baten inguruan egingo dut. Ingeniariaritzak enpresa berri bat da, eta ingeniariari soluzioak ematea da beren helburua. Orain, AEBetan zein aukera izan ditzaketen jakin nahi dute, eta zein estrategia erabili behar dituzten ere bai».

Moira Ezeiza

Giza zientziak eta komunikazioa (Tolosa)

«Ia hiru urtez elkarte batean lanean aritu, eta kontratua amaitu zitzaidan. Interneten hara eta hona nenbiler topatu nuen kurtoa. Interesgarria eta trinkoa iruditzen zitzaidan, edukiez gain, hizkuntzei ere tarte handia eskaintzen zela. Aurrera egitea erabaki nuen, lan munduan aukera gehiago izateko».

«Besteak beste call center-ean aritzen den enpresa batean egingo dut proiektua. Peru eta Kolonbian sektore oso indartsua da, eta enpresak bertan egon nahi du. Beraz, gehienbat aukerak aztertu beharko ditut zerbitzu honen inguruan».



Tolosako Izaskun auzoko jaien aurkezpena egin berri dute; irudian, agerraldiaren une bat. ITZEA URKIZU

‘Sputnik 13’ bildumaren plaza izango da Tolosako Izaskun auzoa, jaietan

Irailaren 6etik 8ra ospatuko dituzten jaietan, auzoen arteko olinpiadak izango dira berrikuntza nagusia

Itzea Urkizu

Duela bi urte jaio zen *Sputnik* izeneko egitasmoa, artean diskorik grabatu gabeko Tolosako musika taldeak ezagutzera eman, eta estudioan trebatzeko. *Sputnik 11* izena hartu zuen, Bonberenea Ekintzak zigilupean argitaraturiko lehen lan hark, eta bi urte geroago iritsi da *Sputnik 13*, beste lau talde eta zortzi abestirekin. Sormen lan honi bultzada eman dion etxean, Bonberenean, eskaini zuten taldeek lehen emanaldia pasa den ostiralean, eta irailean Izaskun auzoko jaietako oholta izango da, *Sputnik 13*ren aurkezpenarako plaza.

Herriko musikarien lana aurkeztearekin batera, ordea, eta ur-

teroko moduan, Izaskun auzoko festa batzordeak uztaila aprobetxatu du, iraila hasieran ospatuko dituzten jaiak jendartera zabaltzeko. Horrela, irailaren 6tik 8ra bitarte izango dira aurtengo festak, eta besteak beste, Tolosako auzoen arteko olinpiadak aurkeztu dituzte berrikuntza moduan.

Jaien hasiera jada tradizio bilakatu den txupinazo eta trikopoteoarekin iragarriko dute antolatzailak: «Ostiral arratsaldean izango da, eta ondoren danborrada egingo dugu. Urtez urte arrakasta hartu duen jardura da, eta baita gure ekitaldirik kuttunenetakoa ere», azaldu dute antolatzailak, Otsabi auzo elkartearen egindako agerraldian.

Aipatzekoa da, danborradako kideen afarian eta danborradan bertan izena emateko aukerarik badela jada, Arsenal nahiz Izaskun elkarteetan, eta Denak tabernan.

Bonberenea Txarangaren doinuen eta danbor hotsen ondoren,

Tolosako musika taldeen txanda izango da, hain zuzen, *Sputnik 13* bildumako kideen emanaldiarekin.

2011. urteko *Sputnik* alean bezalaxe, nolabait Izaskun auzoko ikur diren *Sputnik* eraikinen izena eta irudia hartu du aurtengo diskoak ere. Atila y Los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wainot taldeen doinuak entzun ahal izango dira, eta Barrua Truk taldeko Elene Arandiak nabarmendu duenez, «aniztasuna nabaria da *Sputnik 13*n, bai musika estiloei dagokienez, eta baita musikarrien belaunaldiei dagokienez ere».

Izan ere, rock'n roll doinuekin hasi, eta salsa, ska, Oi! nahiz bestelako generoak elkartu dituzte musikariek, Mikel Zelaiaren soinua eta nahasketa lanen laguntzaz.

Izaskun, oholta garrantzitsu

Izaskun auzoko antolatzailak herriko musikariei ematen diete protagonismoa jaien lehen egu-

nean; larunbatean, ordea, Euskal Herrira nahiz kanpora begira jarri, eta goi mailako hiru taldek hartuko dute *Sputnik* plazako eszenatokia.

23:00etan hasita, Urnietako Cohen taldearekin da lehenik, eta jarraian Jerez de la Fronterako Gas Drummers eta Alacanteko Dinero izango dira oholtzan. Musika-zale askoren arreta piztuko duten emanaldiak izango dira, eta antolatzailak plaza betetzea espero dute.

Jaien azkeneko eguna, berriz, auzoko nahiz herriko gaztetxoek eskaini diete aurtun: «Festak ahalik eta jende gehienari hurbiltzea da gure nahia, eta horregatik, aurtun ere garrantzia berezia eman diogu igandeari. Iazko egitarauaren ildo bera jarraituz, aurtun ere etxeko txikienek protagonismo nabarmena izango dute», azaldu dute.

Honez gain, igandeko eguerdiko patata tortilla lehiaketa arrakastatsua ere izango da aurtun, parte hartu nahi duenarentzat.

↓ Izaskun auzoko jaiak

IRAILAK 6, OSTIRALA

- 18:00. Txupinazo eta txokolate jatea Sputnik plazan. Ondoren, buruhandiak ibiliko dira.
- 19:30. Trikopotea Albizturaren eskutik, txosnetatik hasita. Auzoko tabernetan barrena ibiliko dira.
- 20:30. Danborradako afaria.
- 22:45. Danborrada auzoan barrena, Bonberenea Txarangarekin.
- 00:00. *Sputnik 13* bildumaren aurkezpen kontzertua: Atila y los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wainot ariko dira taula gainean.

IRAILAK 7, LARUNBATA

- 11:00. Haur jolasak.
- 12:00. Herriko auzoen arteko olinpiada-desafioa, Zabalarreta parkean.
- 14:00. Auzo bazkaria txarangarekin, Izaskun plazan.
- 19:00. Sagardo dastatzea eta pintxoak Izaskun plazan.
- 21:00. Zahagi ardoa Izaskun plazan. Norberak etxetik ekarri beharko ditu jaiak.
- 23:00. Kontzertuak *Sputnik* plazan: Cohen (Urnietak), Gas Drummers (Jerez de la Frontera, Espainia) eta Dinero (Alacant, Herrialde Katalanak).

IRAILAK 8, IGANDEA

- 09:00. Diana Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.
- 12:00. Toka txapelketa: emakumezkoak, gizonetzkoak eta haurrak.
- 13:00. Tortilla txapelketa. Etxetik prestatuta eraman beharko dira tortillak, epaimahaiak dasta ditzan.
- 14:00. Zahagi ardoa Izaskun plazan. Lehiaketako tortillekin eta norberak etxetik eramandako jakiekin egingo dute bazkari legea.
- 16:30. Shandu Teatro taldearen *Kataklown* antzezana, eta Jon Magik magoaren emanaldia *Sputnik* plazan.
- 17:00. 2013. urteko Izaskun auzoko mus txapelketa egingo dute jaiak amaitzeko, Izaskun plazan.


Ondo pasa Santiago jaiak!

- Metxak + moztu + orraztu : 56 €
- Kolorea + orraztu : 28 €
- Gizonezkoiei ilea mozte : 14'90 €

Tel.: 943 047 955 • 651 507 608
 Etxeondo auzoa, 7 behea • Billabona


 Euskal Herria, 22
 • IBARRA •
 943 67 02 44

Sartu gure webgunean
hitza info 
 tolosaldea.hitza.info
info

Santioek eta San Inazio Jaiek bat egingo dute uztaila bukaeran

Villabonan, Ibarrako San Inazio auzoan eta Altzon ondorengo egunetan hasiko dira herri eta auzoko jaiek

Asier Imaz

Villabonan gaur hasiko dira Santio Jaiek ospatzen. Txupinazoa 18:00etan botako dute, eta hortik aurrera, zortzi egun iraungo dituen egitaraua martxan jarriko da. Hasten den guztia bukatzen delako, jaiak uztailaren 31n amaituko dira Villabonan, hain juxtu, San Inazioetan. Batzuk amaitzean besteak hasten direla ere jakina denez, jaiak lekukoa Altzok eta Ibarrako San Inazio auzoak hartuko die.

Altzon hilaren 27ra aurreratu dute jaietako lehen eguna. Larunbatean, pilota partidak, toka txapelketa eta zahagi ardoa egongo dira. Ondoren, atsedean hartzeko baliatuko dituzte uztailaren 28a eta 29a. Jaiak jarraipena hilaren 30ean emango diote, San Inazio bezperan. Abuztuaren 1ean eten berri bat egingo dute, 3an amaitzeko jaiekin. Jaietako egitarau guztia, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak ostegunetan aterako duen gehigarrian egongo da ikusgai. Bertan, Tolosaldeko eta Leitzaldeko 16 herriren jai egitarauak egongo dira, abuztuaren festak ospatzen dituztenak, hain zuzen ere.

Altzon bezala, ibartarrek ere

San Inazioko jaien hasiera uztailaren 27ra aurreratu dute. Egitaraua oparatu dute egun horretarako, goizetik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte iraungo duena. Bigarren eta azken jai eguna, uztailaren 31n izango da, egun horretako santuaren izena daraman Ibarrako auzoan. Meza nagusiarekin hasiko dira ospakizunak. Ondoren, pintxo dastatzearen txanda izango da. Azkenik, eta ohiturari jarraituz, festari amaiera trakarekin emango diote.

Giza proba eta krosa

Villabonako jaien lehen bi egunetan bi kirol proba interesgarri ikusteko aukera egongo da. Bigarrenegun, gainera, parte hartzeko parada izango du nahi duen guztia.

Aipatu bezala, txupinazoa gaur botako dute billabonatarrek, eta lehen eguna borobiltzeko, herriafariaren ondoren, giza probak

Giza proba gaur 22:00etan hasiko da, eta krosa, bihar, 10:30etik aurrera

izango dira ikusgai Maiatzaren Lehena plazan. Lehenik, emakumezkoek osatutako Ibarrako eta Orioko taldeek erakustaldia eskainiko dute 15 minutuz, 550 kilogramoko harriari tirakoa. Ondoren, gizonezkoen txanda izango da. Loatzo eta Aiztondo-Oarso taldeak nor baino nor ariko dira



Santio Kros herrikoia XXXIII. edizioa jokatuko da aurtengo Villabonako Jailetan. HITZA

lehiatzen. Hauek, 20 minututan 900 kilogramoko harriarekin ahalik eta plaza gehien egin beharko dituzte. 22:00etatik aurrera, beraz, izango da zer ikusia, kiroldegien atzealdean kokatzen den Maiatzaren Lehena plazan.

Bihar, hilaren 26ean, XXXIII. Santio Kros herrikoia lehiatuko da Villabonan, Zumbeltz elkarte-kideek antolatuta. Irteera, hain juxtu, elkartearen aurretik hartuko dute korrikalariak. Izen ematea dohainik da, eta horretarako bi aukera daude, egunean bertan elkartearen ingurura joanaz, edo www.herrikrossa.com webgunera sartuz.

Benjaminak 10:30ean abiatuko dira lasterka, Zumbeltz inguruko ibilbidean, hau da, buelta txikia egingo dute. Alebinak, 10:45ean irteerako dira, eta ibilbide txikiari bi itzuli emango dizkiote. Infantilen txanda 11:00etan iritsiko da. Hauek, ibilbide nagusiari itzuli bat emango diote, kadeteek bezala. Ondorioz, bi maila hauek korrikalariak elkarrekin aterako dira. Juniorrak, proba nagusiko lehiakideak eta beteranoak ere 11:00etan irteerako dira, baina distantziak ez dira berdinak izango.

↓ Egitarauak

SAN INAZIO, IBARRA

UZTAILAK 27, LARUNBATA

■ 11:00. Haur festa: jokoak, tailerrak eta abar.

■ 18:00. Patata tortilla lehiaketa.

■ 18:30. Herri kirolak, Ibarrako soka tira taldearen eskutik.

■ 21:00. Herri afaria. Afaria norberak ekartzen du, edaria festa batzordeak jarriko du. Izen emateko epea gaur amaitzen da, Bizi Nahi eta Gaztelubide tabernetan.

■ Ondoren. DJ Andoniren emantaldia.

Juniorren kasuan, ibilbide nagusiari bi itzuli emango dizkiote, eta gainontzeko bi mailetako kideek, hiru. Aipatu, ibilbide nagusiko itzuli bakoitzak 2,5 kilometroko luzera duela.

Sarien alorrean, kategori bakoitzeko lehenengo gizonezkoak eta emakumezkoak izango dira sarituak.

Zumbeltz Elkarte kideen esanetan, antolakuntzak ez ditu ger-

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

■ 09:00. Meza.

■ Ondoren. Pintxo dastatzea eta jai amaierako traka.

ALTZO

UZTAILAK 27, LARUNBATA

■ 19:00. Frontoi zaharreko pilotarien finalerdia.

■ Ondoren. Zahagi ardoa egingo dute.

■ Tartean. Toka Txapelketa jokatuko da.

EGITARAU OSOA ABUZTUKO JAIETAKO GEHIGARRIAN

ta daitezkeen istripuen ardurak bere gain hartuko. Horrez gain, «partehartzaileei lasterketa baino lehen azterketa medikoa egingo da gomendatzen diegu, kirol ekintzaren arriskua norberaren gain baitago».

Lasterketak irauten duen bitartean, ordu bat gutxi gorabehera, kaleak guztiz itxirik egongo dira auto, kamioi eta autobusentzat.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Ostatu Hernalde Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria



Hernalde
Tel.: 943-65 24 96

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Mahala

Bi sorta



<http://www.mahalanaturala.com>

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Eureka zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera



Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel: 943 01 24 78 • www.eurekamuseoa.es

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean **ZOKZETAK** atalean.
Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza

Carlos Peña 24 orduz ariko da igerian Allotzko urtegian

Igeri egiten duen minutu bakoitzeko euro bana bideratuko zaio Gerna gaixotasun arraroek kaltetutako elkarteari

Mikel Iraola Tolosa

Carlos Peñak beste erronka bat ezarri dio bere buruari, izan ere, asteburu honetan 24 orduz egingo du igerian Allotz (Nafarroa) urtegian. Desafio horren helburu nagusiak gaixotasun arraroak dituzten pertsonak lagundu eta haueki sentsibilizazioa zabaltzea dira.

Gernak, gaixotasun arraro eta ez komunek kaltetutako Nafarroako elkarteak, antolatutako ekimena da asteburukoa. Horrela, igerilari tolosarrak igerian egiten duen minutu bakoitzeko euro bat –guztira 1.440 euro– emango zaio aipatutako elkarteari. Gernak gaixoak lagundu eta euren bizitzak errazteko egiten du lan duela urtebetetik, eta dagoeneko 70 bazkide ditu.

Igeri bakarrik ez

Peña larunbateko 12:00etan hasiko da igerian, eta igandean amaituko du, ordu berean. Baina nahi duen orok ere parte hartzeko au-

keria izango du, izan ere, antolatzailerak ahalik eta jende gehien hurbiltzea dute helburu.

Horregatik, ibilbide alternatibo bat irekiko da erreleboak eman nahi dituzten horientzat. Horrez gain, kirol ekintzak (piragua, gimnasia...), tailerrak, kontzertuak eta dantzak antolatu dituzte. Lagunak igeriketa taldeak ere ikus-kizuna eskainiko du.

Kontzientzia bila

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, gaixotasun arraroak 10.000 pertsonako 5 kasu edo gutxiago izaten direnak dira. Guztira, 7.000 eta 8.000 gaixotasun ez-



Carlos Peña. HITZA

berdin daudela kalkulatu den OMEk, eta mendikuntzako aurre-rapenei esker geroz eta informazio gehiago eskuratzen ari dira hauen inguruan.

Mundu osoko populazioaren %6 eta %8ari eragiten die gaixotasun hauek. EAE eta Nafarroan 70.000 kasu daude. «Edonori gerta dakioko», diote ekimen honen antolatzailerak.

Gaixotasun hauek, kasu gehienetan, kronikoak eta endekapenezkoak dira, eta kasu erdientan heriotza eragiten dute: %35 urte bakarrean, %10 urte bat eta bost urte bitartean; eta %15 bost eta hamabost urte artean.

Irudia Amasa-Villabona



TXOMIN CASTRO OROITU DUTE IRUÑEAN

Txomin Castro billabonatarra oroitu dute aurten go sanferminetan. Castro urte askoz aritu zen Incansables txarangarekin batera Alegria de Iruña peñarekin Nafarroako hiriburuko jaiak alaitzen. Pasa den apirillean zendu zen gaixotasun luze ba-

ten ondoren, eta hura gogoratu nahi izan dute festetan. Irudian, Txominen semea eta iloba, txarangako eta peñako kideez inguratuta. Bestalde, urriaren 19rako, bere omenezko eguna antolatzeko lanetan ari dira bere herrian. INCANSABLES TXARANGA

ZIUtik irten da tximistak zauritu zuen haur tolosarra

Aurreikuspen «onak» dituzte medikuek, eta horiek beteko balira, bihar bertan alta jaso lezake gazteak

M. Iraola Tolosa

Pasa den igandean Petrechema mendian Kirikiño aisialdi taldearekin txango bat egiten ari zela tximista batek jota larri zauritu zen 12 urteko tolosarraren osasun egoerak hobekuntzarekin jarraitu du, eta atzoko egunean zehar Zaintza Intentsiboko Unitate pediatrikotik irten zen.

Tximistak eragindako erredu- ra elektrikoan ondorioz, astelehe-

nean «egonkor eta kontziente» zegoen «larritasunaren barnean». Pixkanaka bere egoera hobetzen hasia zen, eta atzokoan hobekuntzek aurrera egin zuten. Oraindik Zaragozako Miguel Servet erietxean dago ingresatuta, baina bertako medikuen aurreikuspenak «onak» dira, eta arriskutik at dagoela diote. Aurreikuspen horiek beteko balira, bihar bertan alta jasotzeko aukerak ditu tolosarrak.

Aitor Errasti, Hirukide Ikastetxe zuzendariaren esanetan, haurrak «ez du oroitzen gertatua-koa», baina animatuta dago. «Bere lagunekin Belagoako kanpalekura itzultzeko gogoia du», azaldu dute monitoreek eta Errastik.

● tolosa@hitza.info

Gutuna

Geurea garatuz, geurean oinarrituta

Haurrek eta irakasleak oporrak hartu berri dituzten honetan, une aproposa da ikasturteko balorazioa egiteko eta merezitako atsedena hartzeko. Gure alaba zaharrenak LH bukatu du aurtengoan eta guretzat ere guraso bezala parada polita da hiru urterekin eskolaratu genduenetik hamabi urte bete arte egin duen ibilbideari errepeaso bat egiteko.

Hasteko esan behar dut, eskola txiki batean eman dituela HH eta LH, Altzoko Imaz Bertsolaria Eskolan, hain zuzen ere. Eskola txiki batean eskolaratzen denetik 12 urterarte bertan izateak bere heziketa garrantzi handia du guretzat.

Eta ez eskola txiki bat delako, eskola txikiak aurrera eramaten duten hezkuntza eredu eta proiektuagatik baiziki; haurrik ez genduen artean ere asko erakartzen gintuen eskola txikien proiektuak sakonean ezagutu ez arren, orain ordea gure alabak eskolaratu genituenetik esan dezakegu egin genietzen arte egin duen ibilbideari errepeaso bat egiteko.

Eskola txikiak bizi duten bizi iraupen zailtasunaren gainetik aurrera eramaten duten eredu dagoela gakoia esango genuke, *konstruktibismoan* oinarritzen duten irakas eta ikas eredu. Bertan elkareragina eta kooperazioa era naturalean sustatzen

dira, herriaren nortasuna eta kulturaren oinarritutako heziketa bultzatzen da, naturarekin harreman zuzena du eta irakasle, ikasle eta gurasoen arteko harremana estua da.

Lekuan lekuko eskola txikiak izango dute bere berezitasuna baina oinarrian eredu horri jarraitzen diote eta hori suertatu zaigu benetan aberatsa.

Jakin badakigu, ordea, haizeak beste norabide batzuetan jotzen duela eta Iberiar Penintsularen erdialdetik beste hezkuntza lege bat ezarri nahi dugutela, zeinetan orain arte aipatu dugunaren kontrako norabidea markatu nahi

duten. Hezkuntzaren Lege Erreforma horrek eskola txikiak aipamenik ere ez du egiten. Hezkuntza komunitatearen irtizia albo batera utzi nahi du, hezkuntza sistema, ekonomia eta lehiakortasunean indartzeko tresna gisa erabili nahi du. Wert-en lege erreformaren aurrean hezkuntza komunitate osoa orain arte egin den bezalaxe, ez kikitzeke deia egin nahi dugu, aurre eginez, geurea garatuz eta eskola txikiak oinarri helduz, hezkuntza kooperatiboa bultzatuz, ez lehiakorra, haurrek elkarbizitzaren ikastea eraginez, jakintzak eta gaitasunak bereganatuz eta ez lehiatuz.

Legea bat izan edo bestea (nahiz eta baduen garrantzia, asko mugatzen baitu) gela ba-

rruan umeekin egiten den lana da garrantzitsua, eta horren adierazle dira urte guzti hauetan haurrekin Altzoko Imaz Bertsolaria Eskolan landu dituzten baloreak eta aurrera eramaten dituzten proiektuak; ezin ditut denak aipatu, hala ere, azken bi urte hauetan Arnold Stern-en filosofian oinarritutako Arte tailerra eta aurten go ikasturtean burututako Zine tailerrak aipamen berezia merezi dute. Zorionak beraz, ikasle eta irakasleoi bereziki (egungoak zein hermendik pasa direnak) eta Eskola komunitate osoari, merezitako oporrak dituzte/ditugu. Datoren ikasturtean berriro elkarren berri izango dugu. Zorionak.

■ Marta Agirrezabala Zubillaga eta Josu Astrain Azkona.

Berazubiko ibai ondoko pasealekua zabaldu egin dute

Zabalera ia biderkatu egin dute; irailerako bukatuko dituzte lehen faseko lanak, aurreikuspenen arabera

Iñigo Terradillos Tolosa

Hainbat astez itxita egon eta gero, zabaldu dute Berazubi estadioaren aldeko Oria ibaiaren ondoko pasealekua. Gainera, Tolosako Udaletik adierazi dutenez, «oso gertu dago Berazubi estadioa berrietzeko obren amaiera». Aurreikuspenen arabera, irailerako bukatuko dituzte lehen faseko eraberritze lanak.

Martxoan hasi zituzten estadioa berrietzeko lanak, eta estadioa bera berrietzearekin batera, ibaiaren ondoko pasealekua ere berri dute. Zabaleran irabaztearekin batera, beste hainbat hobekuntza ere egin dira bertan: bankuak jarri dira eta lorezaintza lanak egin. Bestalde, Ur Agentziak jarritako esijentziak betetz, pasealekua eta estadioa banatzen

zituena horma bota eta hesi bat jarri dute.

Pasealekuaren zabalera ia biderkatu egin dute, eta horrekin udalak ibilbidearen erabilera sustatu nahi duela azaldu du, «gune irekiago, erosoago eta argiago bilakatu baita». Era berean, zabaltezarekin «orain artean, erabiltzaileen artean, ohikoak ziren nahasmenak» ekidin nahi izan dituzte.

Lehendabiziko fasean, pasealekua egokitzeaz gain, beste hainbat eraberritze lan ere egingo dituzte. Horien artean daude sarre-ara, aldagelak, tribuna, gimnasioa eta padeleko bi pistak. Horiek guztiak irailerako prest izango direla esan dute.

Proiektu honekin «auzoaren eta kirol ekipamenduen arteko armonia sortzea» lortu nahi dute: «Orain gutxi arte, pareta luze eta zabal batzuek inguratua egon da estadioa, eta eraberritze lanen ondoren, hauek ez dira egongo, auzoaren itxura orokorrarekin bat egingo duen kirol ekipamendua».

● tolosa@hitza.info



Handiagoa da orain ibaiaren ondoko pasealekua. HITZA

Irudia ◊ Leaburu-Txarama



LARRESOROKO LAGUNEKIN EGUNPASA

Urtero moduan, Leaburu-Txaramako herritarrek egunpasa polita egin dute Larresoroko lagunekin. Iragan igandean 36 lagun joan ziren Iparraldeko lagunak bisitatzera, eta egitarau oparoa prestatu zieten. Bazkaria izan zuten, haurrentzako puzga-

rriak, eta beroari aurre eginez errekan bainua hartzeko aukera ere bai. Afaltzeko, berriak, beralek prestatutako taloak dastatu zituzten, eta bertso-lariak eta trikitilariak ere izan zituzten. Ederki igaro zutela eguna azaldu dute leaburuarrek. HITZA

Sanbartolometan kuadrillek soka dantzan parte hartzeko deialdia

Kuadrilla bakoitzetik kide bat edo bi dantzatzera animatu dute; astelehenean izango da entsegua

I. Terradillos Ibarra

Abuztuaren 21etik 25ra ospatuko dituzte San Bartolome jaiak ibaritarrek. Bada, jaien barruan, abuztuaren 23an, ostiralez, sokadantza dantzatzeko dute herriko koardiletako kideek, arratsaldean. Hala, bertan parte hartzera animatu dituzte herritarrek, eta horretarako entsegura joateko deia egin dute.



Soka dantzako une bat. HITZA

Kuadrilla bakoitzetik kide bat edo bi dantzatzera animatu du festa batzordeak. Horiek astelehenean, uztailaren 29an, Ibai-Gaineko dantza lokalean, 20:00etan egingo duten entsegura joan beharko dute.

→ Laburrak

Paleta Txapelketako finala jokatuko dute gaur

TOLOSA ◊ Tolosa CFK antolatzen duen 45. Paleta Txapelketako finala jokatuko dituzte gaur, 18:00etatik aurrera. 3. eta 4. posturako Apeztegia-Maiza eta Zabala-Lazkanok jokatuko dute, eta finalean Karrera-Izagirre eta Aldazabal-Goikoetxea bikoteak ariko dira.

Manent taldea zuzenean ikusteko aukera, gaur

TOLOSA ◊ Tolosako Udalak Gau Giroren barruan antolatutako ekitaldien artean, Manent taldearen kontzertua izango da gaur. Tolosarrek *Treehouse* diskoko euren abestiak joko dituzte Plaza Berrian, 22:30etik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ 26°
≈ 20°

GOIZA LAINTUTA
ARRATSALDEA LAINTUTA
BEROENA 27°
HOTZENA 20°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Amasa-Villabona



50 EUROKO TXEKEAK BANATU DITUZTE

Oria merkatarien elkarteak, azkeneko bost ostiral hauetan 50 euroko hogeit hamar txekak banatu ditu bezeroen artean. Udako salmentak indartzeko grinarekin antolatutako kanpaina izan da: «Arrakastatsua izan da, hogeit hamar txekak banatu ditugu eta jendea mugitu arazi du», adierazi dute elkartetik. Sariak elkarteko dendetan gastatzeko izan-

go dira. Bukatzeko, Villabonako Oria merkatarien elkarteak Santio Jai zoriontsuak opa nahi dizkie billabonatar guztiei, eta eskerrak eman dizkiete Villabonan erosten duten guztiei. «Jarrai dezagun denon artean herria bultzatzen eta sendotzen! Zorionak eta oso ondo pasa», gaineratu dute elkarteko kideek. HITZA

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GALERKO ESKAINTZA

2 orduko paseoa zaldiz Aralar inguruan

ALARRE ZALDITEGIA
ZALDIA 2014 - GIPIZKOA
Tel. 676 333 024
alarzalditegia@gmail.com
www.alarzalditegia.com

15€ berria

www.mauka.eu

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Jaien barruan, hilaren 30ean egingo den Etxeondoko bazkariko izen emateko epea gaur bukatuko da. Izena eman nahi dutenek gaur kulturako bulegotik pasa beharko dute 08:00etatik 11:00etara.

■ **Berastegi.** Sanlontzotako jaien barruan herri afaria egingo dute Berastegin, abuztuaren 8an, osteguna. Txekorra buruntzian prestatuko dute. Txarrelak salgai daude, 12 urtekin behar koentzat 12 euroan eta helduentzat 18 euroan. Urepele eta Basurde elkarteetan, Zelai tabernan edota udaletxean eskuratu ahal dira. Azken eguna, hilaren 31a izango da.

■ **Ibarra.** Langostino Motor elkarteak, hilaren 28rako irteera antolatutako. Kasu honetan, Ibarrratik atera eta Doneztebe, Donibane Garazi, Luzaide eta Zubiritik barrena egingo dute itzulia. Bidaia luzea denez, puntual aterako dira, eta Zubirin bazkalduko dute 25 euroko menua. Izena emateko azken eguna, hilaren 25a, osteguna izango da, eta dirua 2095 5043 97 1064234593 kutzako kontu zerbakian sartu beharko dute irteera animatzen direnek.

■ **Ikaztegieta.** San Lorentzo jaietako otorduetako txartelak salgai daude Ostatu eta Toki-Alai tabernetan. Erosteko azken eguna hilaren 29a, astelehena, izango da.

■ **Urkizu.** Urkizuko Alurtxiki auzo elkartearen larunbatean, hilak 27, Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagarikano bertsoari buruzko bertso afaria izango da, postre lehiaketa eta guzti. Izena emateko azken eguna da gaur, eta 615 72 06 15 telefono zenbakira deitu beharko da. Helduek 28 euro eta umeek 12 euro ordaindu beharko dute afaria. Postre lehiaketara animatzen denak, berri, 6-8 pertsonentzako postre eramane beharko du.

JAIAK

■ **Amasa-Villabona.** Herriko jaiak hasiera emango diote 18:00etan Billabona Futbol Kirol Elkarteak botako duten txupinazoarekin, Iraunkorrek txarangak alaituta. 18:15ean, buruhandi eta erraldoien kalejira Iraunkorrek txarangarekin. 19:30ean, Futbito txapelketako finala izango da, Erreboteko plazan, eta 21:00etan, herri afaria plazan bertan. 22:00etan, Giza probak izango dira, Maiazaren Lehena plazan. Emakumezkoen erakustaldia (550 kilokoekin) Orio eta Ibarra taldeen eskutik. Ondoren, gizonen desafioko (900 kilokoekin), Aiztondo-Oarso eta Loatzo taldeen artean. 23:30ean, danborrada musika eskolatik abiatuta, Iraunkorrek txarangarekin. 00:30ean, Dolce Tangana eta Vendetta taldeen kontzertuak, eta 01:00etan, *Gazte garaia* alaituzizenezko DJ emanaldia 40 urtekin gorakoentzat Txistulari plazan.

Egin HITZAren HARPIDEDUN

ORDUÑA
Aisia hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldiaren IRABAZLEA:

**JON
MUJIKAZKANO**
(Idiazabal)

Hitza jarriko da saridunarekin harremanetan.

hitza info